

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2015eko ekainaren 23an aurkeztuko du

Artea ikasbide

Babeslea:



Artea ikasbide erakusketa berria

Guggenheim Bilbao Museoan

- Noiz: ekainaren 23a – irailaren 20a
 - Non: Guggenheim Bilbao Museoko hezkuntza gunea
 - Babeslea: BBK
-
- **Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako sei eta hamabi urte arteko 143 ikaslek sormenez betetako lanak ondu dituzte, eta erakusgai jarri dira Museoko hezkuntza gunean.**
 - ***Artea ikasbide* programaren helburua da ikasleei eskola-curriculumeko ikasgaiak ikasten erraztea, jolasaren eta arte-praktikaren bitartez.**
 - **Museoaren entzuteko gidak, lehenbiziko aldiz, ekimen honen inguruko informazioa izango dute. Gainera, *Artea ikasbide* erakusketako lan batzuk azalduko dituzte, beste erakusketetan ohikoa den moduan.**

“Niri Guggenheim Bilbao Museora joatea eta igeltsuzko harri batzuk egitea gustatu zaizkit gehien. Lehenengoa txarto atera zitzaidan, bigarrena ere bai eta, azkenean, hirugarrena zoragarri, adiskide batekin egin nuelako. Une horretan, beste 50 ere egingo nituen; izugarri gustuko dut”. Horrelakoxe pozez hitz egin zuen Oiongo Ramiro de Maeztu ikastetxeko neskatala batek *Artea ikasbide* programatik pasa ondoren, aurtan hemezortzigarren urtea bete duen honetan.

Erakusketa honek BBKren babesa du, baita Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren lankidetzaren ere, eta ekainaren 23tik irailaren 20ra izango da ikusgai, non eta Museoaren hezkuntza-gunean. Iragan urtean inauguratutako espazio horrek askotariko jarduerak eta erakusketak hartzen ditu.

Elsie Ansareok, Naia del Castillok, Iñaki Graceneak, Maider Lópezek, Ainhoa Ortellsek eta Jorge Rubiok, Guggenheim Bilbao Museoaren hezitzaileekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko sei ikastetxetako irakasleekin lankidetzan, diseinatu eta dinamizatu dituzte tailerrok eta, bertan, ernatu dira ezusteko sormenerako proposamen hauek.

“Erakusten dugu ikasturtean zehar egindakoaren zati bat, baina nire ustez, askoz garrantzitsuagoa da egin ez duguna, egiteke dagoena, lanak egin ahala sortu diren ideiak, norberak antzeman dituen aukerak, etorriko direnak, eta bisitakoari emango dioten erabilera. Arau batzuk, modu

batzuk ikasi ditugu. Horiek praktikan jartzea besterik ez dago: norberak ikusiko du non eta nola. Nik ezin diot egiteari utzi, egunero gauza desberdinak ikusten ditut, eta egun asko daramatzat joko honetan jostatzen". Jorge Rubio artistak hitz horiek baliatu zituen Sestaoko Kueto LHlko ikasleekin egindako lana baloratzeko.

Irudimen joriz betetako sei proiektu artistiko

Artea ikasbide osatzen duten 143 "artistak" Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako sei ikastetxetakoak dira.

Eibarko Arrateko Andramari LHlko 4. mailako ikasleek aste batean zer jaten duten zerrendatu eta sailkatu zuten. Kolorezko paperetan elikagai horien siluetak marraztu zituzten, eta jan zuten elikagai adina silueta moztu zituzten; hartara, gogoeta egin zuten elikadura osasungarriari buruz. Ikasketa horrekin amaitzeko, umeek joko dibertigarri bat asmatu zuten ("Haragia eta barazkiak beti elkarrekin") eta, horrenbestez, bi taldetan banatu ziren: proteinen taldea gorritz eta bitaminena, berriz, berdez; gorritzkoek, okela adierazten zituztenak, elkartzeko joera agertzen zuten, eta talde berdearen (barazkien) rola zen beti tartean jartzea, okelen lagungarri.

Bilboko Birjinetxe LHlko 2. mailako ikasleek animaliak nola ugaltzen diren ikasi zuten. Animalia bibiparo eta obiparoei buruzko informazioa eta argazkiak bilatu zituzten eta, dokumentazio hori baliatuz, bi eskultura sortu zituzten: bata arrautza itzel baten formakoa, egunkari-paperez eta igeltsuz fabrikatua zen eta, gero, askotariko elementuak gehitu zizkioten, adibidez, lumak, mokoak eta arrautza txikiagoak; bigarren eskulturak eme baten sabela irudikatzen zuen, zaku baten formako egitura bat baliatuz. Proiektua borobiltzeko, ikasleek animalia horien bizitzako egun baten historia asmatu zuten, horien soinuak imitatuz eta grabatuz.

Bestalde, Sestako Kueto LHlko 5. mailako ikasleek beren ingurune hurbila aztertu zuten argazkien bitartez eta tableta digitalak baliatuz. Ikasgeletan hainbat argazki hartu zituzten: bolalimak, motxilak, hormako histurak, lanpara fluoreszenteak edo ikasmahaiak; gainera, argazkigintzaren aukerak arakatu zituzten, adibidez, fokatze laburrak, ekortzeak, goitik beherakoak eta behetik gorakoak, figuratiboa abstraktu bihurtuz. Era horretan, inguruan dutenari buruzko asmamen handiko ikuspuntuak deskubritu zituzten eta, aldi berean, jabetu ere teknologia berriek dauzkaten aukera estetiko eta sortzaileez.

Aurtengo *Artea ikasbide* honetan, Laudioko Lamuza LHlko lehen mailakoek lau horma-irudi erraldoi sortu zituzten, paisaia berdina urtaro desberdinetan erakusten zutenak. Bada, urtaroak adierazteko, paisaia bakoitzerako kolore egokienak hautatu zituzten, eta ehundurak gehitu, adibidez, hosto ebakiak edo hartxintzar apaingarri zuriak, elurra edo horma (jela) irudi. Urtaroetatik egindako ibilaldi horri akabera emateko, modelo-pase dibertigarri bat egin zuten eta, bertan, euritarako txanoak, aterkiak, eskularruak, txamarrak edo eguzkitako betaurrekoak jantzita atera ziren, egoera klimatologiko guztiak antzetzearren.

Bilboko Otxarkoaga LHIko 2. mailako ikasleak ahalegindu ziren emozioak eta sentimenduak artearen eta geometriaren bidez adierazten. Sentimenduak marraztu zituzten marraz, kurbak edo zuzenak baliatuz, baita forma geometrikoak ere: triangeluak, zirkuluak, etab. Gainera, "bizitzako zuhaitzak" berrinterpretatu zituzten: koloreak emozioei lotu zizkieten. Zuhaitz horiek mexikar herri-tradizioko eskultura tipikoak dira. Elementu horien bidez, emozioen baso bat sortu zuten, kolore sinbolikoz beteta.

Oiongo Ramiro de Maeztu LHIko 6. mailako ikasleek paisaia adierazteko sistemak landu zituzten, adibidez, planoak, mapak, kartak eta planisferioak. Kontzeptu horien bitartez, gogoeta egin zuten migrazioei, horien jatorri-dibertsitateari eta komunitate berriko horien integrazioari buruz. Ikasle bakoitzak paisaiaren zati bat ebaki zuen paperean bere ikuspegi bereziaren arabera eta, denen artean, panoramika handi bat ondu zuten, Henri Matisse artistaren paper itsatsien teknika baliatuz. Talde-lan horrek taldekideen arteko lankidetzeta eta enpatia sustatu zituen.

“Esperientzia oso ona izan da. Gure kasuan, hizkuntza-eredu desberdinetako ikasleek elkarrekin bizi eta lan egin dute proiektua burura eramateko. Programa honetan, nire iritziz, oso ondo laburbiltzen da Eskolak zer beharko lukeen: erronkaz eta esperientzia dibertigarri eta interesgarri betetako tokiak, gizarte-kohesioan laguntzeko, baita kezka dauzkaten pertsonak prestatzeko ere, berdinaoak, libreagoak eta kritikagoak”. Oiongo Ramiro de Maeztu LHIko irakasle Iñigo Beristainek era horretan baloratu zuen *Artea ikasbide* programako bere esperientzia.

New York-Bilbao elkartrukea

1999tik, *Artea ikasbide* aukera eman die ikasle, artista eta irakasle parte-hartzaileei kultura-elkartruke bat egiteko, Euskal Herriko eta New Yorkeko Lehen Mailako Hezkuntzako ikastetxeek arte-hezkuntza izan baitute harremanerako bide. Ikasturte honetan, Sestaoko Kueto LHIko klase batek eta New Yorkeko Queens auzoko PS 88ko beste batek gutun- eta argazki- zein informazio-elkartrukea egin dute haien inguruneei eta proiektu artistikoei buruz. Joanna Warren artista lagun zutela, Estatu Batuetako ikasleek beren toki gogokoenak akrilikoz eta akuarelaz margotzen ikasi dute. Bizkaitarrek tableta digitalez egin zituzten beren lanak eta, Jorge Rubio artistaren laguntzaz, beren ingurune hurbilari buruzko ikusizko gida-lan batzuk ondu zituzten, baita Queenseko ikaskideei horiek erakutsi ere.

***Artea ikasbide* hamazortzi urte bete ditu**

1998tik, 2.639 ikaslek, 28 artistak, Lehen Mailako Hezkuntzako hiru hizkuntza-ereduen 186 irakaslek eta Euskal Autonomia Erkidego osoko 127 ikastetxek saiamenez lagundu diete Guggenheim Bilbao Museoko hezitzaileei *Artea ikasbide* programa gauzatzeko.

Heziketa-programa hau New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museoan ernatu zen. 1970. urtean, Natalie K. Lieberman mezenasak jarri zuen martxan, hiriko lehen mailako ikastetxe publikoetan arte-irakaskuntza kendu zutela eta horri erantzunez.

Programa honen helburua da eskola-curriculum indartzea edozein ikasgairi heltzen dioten arte-jardueren bidez, tartean, Ingurunearen Ezaguera, Matematika eta Hizkuntza eta Literaturaraino. Era berean, ikasleei irakasten zaie munduari era sortzaile eta pertsonal batean begiratzen, baita hainbat gaitasun lantzen ere, adibidez, idazkuntza eta ahozko adierazpena; gainera, balioak eskuratzen dituzte (talde-lana, beste kulturekiko bizikidetzeta edo ingurumenaren errespetua).

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio Saila
Tel.: +34 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.es
www.guggenheim-bilbao.es

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.es (prentsa-eremua).